

2002KO URRIAREN 31KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi milaeta biko urriaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpi-retan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Joseba Hernandez Madinabeitia, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Juan Manuel Serna Portugal.

José Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2002ko irailaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- SAN JOSEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN 2. ZERTIFIKAZIOA.-

San Joseko Berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman INJELAN, S.L. en-presako Iñaki Laskurain Gisasola iningenieroak lanen bigarren zertifikazioa aurkeztu du. Bigarren zertifikazio hau LAUREHUN ETA ZAZPI MILA ZAZPIREHUN ETA HOGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOtakoa (407.721,73 €) da.

Zertifikazioa aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, berau onartzea erabakitzen du.

Une honetan Estensoro zinegotzia bertaratu da.

IV.- 10 ETA 12 H.A. ETA 1 SEKTOREKO AA.SS.EN ALDAKETA PUNTULAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2002ko uztailaren 18ko akordio bidez, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxeberria Iturri abogatuak idatzitako 10 eta 12 Hirigintz Area eta 1 Sektoreko Lazkaoko Planeamenduko Arau

...///...

Subsidiarioen aldaketa puntuala dokumentua haserako izaeraz onartu zuen. Aldaketa honek honako helburuak ditu:

- 12 H.A.n aurrikusitako zerbitzu erabilerak egoitzazkoengatiko ordezkatzeara.
- GI-120 errepidea, Lazkaomendiko bidea eta udalerrirako bidearen arteko bidegurutze glorietara birkokatzea.
- Errepide bariantearen zuzenketa, 3 Sektoreko hegoaldean hasten den oinezko bidearen jarraipena era berean 3 Sektorea eta 1 Sektorearen tartean hasitako bidearen jarraipena ahalbidetuz.
- Erdi gunearen batean ez baizik honen osagarria izango den hiri gunen baten konfiguraketa.

Dokumentua jendaurrean egon da hilabete bateko denboraldian, iragarkiak 2002ko irailaren 4 datako "Egunkaria" eta "El Diario Vasco" egunkarietan eta 2002ko irailaren 3 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan 12 alegazio idatzi jaso dira.

Alegazio hauen aurrean aldaketa puntualaren erredaktatzaileek honako txostena egin dute:

- Ander Auzmendi Perez de Lazarraga J.k Andres Auzmendi Odriozola J.ren izenean aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina.*- Aurkeztutako alegazioan, baserria, egoitza eta hirugarren sektoreko erabilerak jasotzeko birgaitzea baimenduz gaur egungo kokapenean kontsolidatu ordez, helburu beraietarako bere ordezkapena baimentzea eskatzen da.

2.- *Kontsiderazioak.*- Dagoen baserria kontsolidatzearen helburua udalerraren hiri hazkundearen memori historikoa gordetzearena ez beste da. Zentzu honetan eraikin horrek aipatu helburua lortzeko elementu oso garrantzitsutzat jotzen da eta, beraz, bere birgaitzea baimenduz eraikina kontsolidatzea egokiagoa ikusten da, barrutik hustuta ere, baina eraitsi eta birreraiki gabe.

3.- *Ondorioak.*- Aurkeztutako alegazioa gaitzestea proposatzen da.

- Carmelo Zabalegi Bitoria J. eta Francisca Laborde Abasolo A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina.*- Glorietaren kokapenarengatik beraien etxea botatzeak dakartzan desagokitasun eta kalteengatik, ordenamendu proposamena birkontsideratu eta desagokitasun hoiek ekarriko ez lituzkeen irtenbide alternatiboak aztertzea eskatzen da.

2.- *Kontsiderazioak.*- GI-120 eta egoitza gunen berriaren eta hedatzeaz, udalerraren erdiko gunera, sarbideen arteko elkargunea kokatzerakoan, Arauen Aldaketa dokumentua egin aurretik, hemen azaldutakoaz gain beste zenbait alternatiba planteatu ziren. Beraien artean honako hauek aipa daitezke: indarreango Arauetako elkargunea mantentzea; baztertua izan da egoitza gunen berrirako sarbidearena ez lukeelako behar bezala konponduko, gunen berri hau eta 1 Sektorearen artean dihoan Hiribarren kaleko zatian

...///...

...///...

trafiko arazoak sortuko lituzkeelako eta azken Sektore honen garapenerako gehiegizko ekonomi zama izango litzatekelako. Aztertutako bigarren kokapena 10-12 H.A.ren lfarrekialdekoa izan da eta baztertua izan da mendiaren malda eta Lazkaomendirako errepidearen estabilitateari gehiegi ukintzen dielako.

Beraz Lazkaoko bariantetik egoitza gune berrira sarbideei irtenbidea emateko propositutako kokapena egokiena dela jotzen da.

Realjoari inguruan egiten dituzten galderei buruz esan Lurzoru eta Baloraketen Erregimenaren 6/1998 Legearen Xedapen Indargabetzaile bakarrean xedatutakoarekin bat, indarrean dagoen 1992ko Lurzoru Legearen Bategindako Testuaren laugarren Xedapen Gehiagarrian jasotako aurrikuspenak direla aplikagarriak.

Elkargune berriaren finantzaketa proposatutako aprobetxamendu berrien gain egiteari buruz, elkargunearen birkokapena proposatutako garapen berriei behar bezalako sarbideak ematearen beharrak sortutakoak direla ulertzen da, eta batipat hauei zerbitzatzen dion azpiegitura azken hauen kontura finantzatua izan behar dela ulertzen da.

3.- *Ondorioak*.- Aurkeztutako alegazioa gaitzestea proposatzen da.

- Maite Soroa Etxezarreta A., Xabier Soroa Etxezarreta J., Carmen Ruiz de Egiño Garai A. eta Juana Irizar Iza A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren* edukina.- Aurkeztutako alegazioan zera eskatzen da: beste eraikin batzuetan egiten den bezala beraien inguruan eraikuntzatik at egongo den gune pribatu libre aurrakusteko.

2.- *Kontsiderazioak*.- Horri dagokionez, Aldaketa dokumentuan, inguruan lursail librerik gabe zenbait eraikinen kontsolidatzea aurrakusten dela, gaur egun eraikinen inguruan dauden lurak gaur gaurkoz zehaztu gabe dagoen burutze unitate batean sartuz, zehazketa hau planeamenduko garapenari dagokion dokumentuan (B.E.B.E.) egingo delarik.

Zentzu honetan esan behar da ordenamendu proposamenak izaera indikatiboa duela soilik eta, ukitutako eraikinen inguruan eraikuntzatik at geratuko den lursail baten aurrakuspena gomendagarria ulertuz ere, planeamenduko garapenari dagokion dokumentua izango da zehaztasunez gai hori zehaztuko duena.

3.- *Ondorioak*.- Alegazioaren kontsiderazioa planeamenduko garapenera bidaltzea proposatzen da.

- Carmen Ruiz de Egiño A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren* edukina.- Aurkeztutako alegazioan zera eskatzen da: beste finka batzuetan egiten den bezala, berarenean ere eraikinaren inguruan eraikuntzatik at geldituko den gune pribatua aurrakustea, zuhaitz batzu dituelako landatuta, bere etxea hornitzen duen gas zisterna duelako eta bere etxe aurreko espaloia zabaltzeko behar izan ziren lurak eman zituelako.

...///...

...///...

2.- *Kontsiderazioak*.- Horri dagokionez, esan behar da Aldaketa dokumentuan, inguruan lursail librerik gabe zenbait eraikinen kontsolidatzea aurrakusten dela, gaur egun eraikinen inguruan dauden lurak gaur gaurkoz zehaztu gabe dagoen burutze unitate batean sartuz, zehazketa hau planeamenduko garapenari dagokion dokumentuan (B.E.B.E.) egingo delarik.

Zentzu honetan esan behar da ordenamendu proposamenak izaera indikatiboa duela soilik eta, ukitutako eraikinen inguruan eraikuntzatik at geratuko den lursail baten aurrakuspenera gomendagarria ulertuz ere, planeamenduko garapenari dagokion dokumentua izango da zehaztasunez gai hori zehaztuko duena.

3.- *Ondorioak*.- Alegazioaren kontsiderazio osoa edo partziala planeamenduko garapenera bidaltzea proposatzen da.

- Xabier Soroa Etxezarreta J. eta Maite Soroa Etxezarreta A.k aurkeztutako alegazioak.-

1.- *Alegazioaren edukina*.- Hiribarren kaleko 10 eta 12 eraikinen inguruetako lursail pribatua lengoratu izan dadin eskatzen da, bere tamaina gutxi gorabehera 1.500 m² takoa izan behar litzakela estimatuz, gutxi gorabehera 30 m.ko hondoarekin, mugak eta eraikin berrietara legezko tartek errespetatuz.

Halaber, eraikuntza berriko etxebizitza blokea, planoan bere etxetik 10 m.ra azaltzen dena, mugitzea eskatzen da.

2.- *Kontsiderazioak*.- Horri dagokionez, esan behar da ordenamendu proposamenak izaera indikatiboa duela soilik eta, ukitutako eraikinen inguruan eraikuntzatik at geratuko den lursail baten aurrakuspenera gomendagarria ulertuz ere, planeamenduko garapenari dagokion dokumentua izango da zehaztasunez gai hori zehaztuko duena (B.E.B.E.).

3.- *Ondorioak*.- Alegazioaren kontsiderazio osoa edo partziala planeamenduko garapenera bidaltzea proposatzen da.

- Juana Irizar Iza A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina*.- Beste finka batzuekin egin den modu berean bere etxearen alboan eta atzean dagoen lursail librea errespetatzea eskatzen da aurkeztutako alegazioan.

2.- *Kontsiderazioak*.- Horri dagokionean, esan behar da Aldaketa dokumentuan, inguruan lursail librerik gabe zenbait eraikinen kontsolidatzea aurrakusten dela, gaur egun eraikinen inguruan dauden lurak gaur gaurkoz zehaztu gabe dagoen burutze unitate batean sartuz, zehazketa hau planeamenduko garapenari dagokion dokumentuan (B.E.B.E.) egingo delarik.

Zentzu honetan esan behar da ordenamendu proposamenak izaera indikatiboa duela soilik eta, ukitutako eraikinen inguruan eraikuntzatik at geratuko den lursail baten aurrakuspenera gomendagarria ulertuz ere, planeamenduko garapenari dagokion dokumentua izango da zehaztasunez gai hori zehaztuko duena.

3.- *Ondorioak*.- Alegazioaren kontsiderazioa planeamenduko garapenera bidaltzea proposatzen da.

...///...

...///...

- Jose Antonio Gorostizu J. eta Milagros Barandiaran Sukia A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina.*- Aurkeztutako alegazioan Arauen Aldaketari bere aurkakotasuna azaltzen dute, Aldaketak alegazioa izenpetzen duenaren etxearen sustsiketa bai dakar, glorieta berria egitearen ondorioz, eta irtenbide alternatibo bat aurkitzen ahalegina egitea eskatzen du.

Halaber, bere aurkakotasuna agertzen dute glorieta berriaren finantzaketa 10-12 H.A.n barneratutako lurretako jabeak izateari, hau, udalerri osoari zerbitzatzeko egiten denez Udala edo Diputazioaren kargu joan beharko lukeelarik.

2.- *Kontsiderazioak.*- GI-120 eta egoitza gunen berriaren eta hedatzeaz, udalerriaren erdiko gunera, sarbideen arteko elkargunea kokatzerakoan, Arauen Aldaketa dokumentua egin aurretik, hemen azaldutakoaz gain beste zenbait alternatiba planteatu ziren. Beraien artean honako hauek aipa daitezke: indarreango Arauetako elkargunea mantentzea; baztertua izan da egoitza gunen berrirako sarbidearena ez lukeelako behar bezala konponduko, gunen berri hau eta 1. Sektorearen artean dihoan Hiribarren kaleko zatian trafiko arazoak sortuko lituzkeelako eta azken Sektore honen garapenerako gehiegizko ekonomi zama izango litzatekelako. Aztertutako bigarren kokapena 10-12 H.A.ren lfarrekialdekua izan da eta baztertua izan da mendiaren malda eta Lazkaomendirako errepidearen estabilitateari gehiegi ukitzen dielako.

Beraz Lazkaoko bariantetik egoitza gunen berrira sarbideei irtenbidea emateko proposatutako kokapena egokiena dela jotzen da.

Elkargune berriaren finantzaketa proposatutako aprobetxamendu berrien gain egiteari buruz, elkargunearen birkokapena proposatutako garapen berriei behar bezalako sarbideak ematearen beharrak sortutakoak direla ulertzen da, eta batipat hauei zerbitzatzeko dion azpiegitura azken hauen kontura finantzatua izan behar dela ulertzen da.

3.- *Ondorioak.*- Aurkeztutako alegazioa gaitzestea proposatzen da.

- Iñigo Aranburu Izagirre J. eta Nerea Loiarte Garmendia A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina.*- Aurkeztutako alegazioan zera proposatzen da: aurrikusitako glorietak bere etxebizitzaren suntsiketa dakarrela eta irtenbide alternatiboak aztertzeko.

Halaber adierazten da bere kostua ez dadila 10-12 Hirigintz Areakoen urbanizazio kostuen artean sartu, glorieta berria gunen historikora eta Lazkaomendira sarbideak hobetzeko aurrikusten delako, eta ez delako logikoa bere burutzea 10-12 H.A.ko aprobetxamenduen esleitzailerek jasan behar izatea eta sistema orokorra izaki lurjabeek bere burutzea egiteko behar den lurra ematera bakarrik daudela behartuta.

Azkenik adierazten da ukitutako lurren jabe gisa administrazio espedientean interesatu izaera aitor dakiekela eta bertan eta berarekin zerikusia duten edozein espedientetan hartutako egintza guztiak pertsonalki jakinarazi dakiekela.

2.- *Kontsiderazioak.*- GI-120 eta egoitza gunen berriaren eta hedatzeaz, udalerriaren erdiko gunera, sarbideen arteko elkargunea kokatzerakoan, Arauen Aldaketa dokumentua egin

...///...

...///...

aurretik, hemen azaldutakoaz gain beste zenbait alternatiba planteatu ziren. Beraien artean honako hauek aipa daitezke: indarreango Arauetako elkargunea mantentzea; baztertua izan da egoitza gunee berrirako sarbidearena ez lukeelako behar bezala konponduko, gunee berri hau eta 1 Sektorearen artean dihoan Hiribarren kaleko zatian trafiko arazoak sortuko lituzkeelako eta azken Sektore honen garapenerako gehiegizko ekonomi zama izango litzatekelako. Aztertutako bigarren kokapena 10-12 H.A.ren lfarrekialdekoa izan da eta baztertua izan da mendiaren malda eta Lazkaomendirako errepidearen estabilitateari gehiegi ukitzen dielako.

Beraz Lazkaoko bariantetik egoitza gunee berrira sarbideei irtenbidea emateko proposatutako kokapena egokiena dela jotzen da.

Elkargune berriaren finantzaketa proposatutako aprobetxamendu berrien gain egiteari buruz, elkargunearen birkokapena proposatutako garapen berriei behar bezalako sarbideak ematearen beharrak sortutakoak direla ulertzen da, eta batipat hauei zerbitzatzen dion azpiegitura azken hauen kontura finantzatua izan behar dela ulertzen da.

Azkenik, espedientean hartzen diren egintza guztiak beraiei jakinaraztea eskatzen denari buruz, esan behar da planeamendu integralaren aldaketa puntualeko dokumentu baten aurrean aurkitzen garela, eta bere formulazioa, lurzoru eta hiri antolaketa erregimen gaietarako presakazko neurriak auratzen dituen martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren aplikazioan, Udalari dagokio. Honelakoetan, herri ekimeneko planetan, Hiri Planeamenduko Arautegiak ez du banakako jakinarazpena xedatzen baizik eta herri informazioa, dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko hedapen handienetako egunkari batetan argitaratuz.

3.- *Ondorioak*. - Aurkeztutako alegazioa gaitzestea proposatzen da.

- Joaquin Agirre Garin J.k aurkeztutako alegazioa. -

1.- *Alegazioaren edukina*. - Lehen apartadu batean esaten da jendaurrean jarritako aldaketa proiektuaren helburuetako bat " eta GI-120 ren arteko elkarguneko glorietaren birkokapena " dela.

Horren inguruan, adierazten du, 1998ko Estatuko Lurzoruaren Legearen 14.2.b artikuluan oinarrituta, ez dagokiola jabetzagoari glorietaren burutzearen finantzaketa baizik eta bakarrik horretarako behar den lurra ematea.

Halaber aprobetxamenduaren handitzea aztertua izan dadin eskatzen da horretarako babestutako etxebizitzaren kopurua kentzea beharrezkoa izan gabe, honela proposamenaren bideragarritasuna bermatuta gera dadin.

Azkenik, prozedimentuan alde interesduntzat hartua izan dadin eskatzen da eta bertan hartzen diren egintza guztiak jakinarazi dakiekela.

2.- *Kontsiderazioak*. - Aldaketa espedientean aurrikusitakoaren ezaugarri eta baldintzak dituen elkargune glorietaren burutzea 10 eta 12 H.A. gunerako aurrikusitako ordenamendu eta beharrei erantzuten dio. Horregatik, ez gara ari guneearen kargura komunikazioetako sistema orokor bat burutzeari buruz baizik eta hau 10 eta 12 H.A.tan aurrikusitako ordenamenduaren ondorioz dator. Eta hortik bere kostua guneari eranstearena.

...///...

...///...

Aldaketa dokumentuan aurrikusitako ordenamendu proposamena ekonomi eta bideragarritasun ikuepegi batetik azertuta zegoen. Hala ere, bideragarritasun azterketa berri baten egitea aurrikusitako eraikuntza berrietako behe solairuetan kokatutako merkataritza aprobetxamendu gehiagizkoari lotuta, gunerako aurrikusitako etxebizitza kopuru guztizkoa gehitzea aholkatzen dute. Horretarako, merkataritza erabilerarako aurrikusitako zati handi bat egoitzazko bezala hartzea proposatzen da eta era berean teilatupe solairua ganbara moduan hartzea, etxebizitza kopurua handituz, eraikitako azalera gehiegi ukitu gabe, horrela ordenamenduaren eta gune osoaren urbanizazioaren finantza bideragarritasuna, sarbideko glorieta barne, bermatua izan dadin.

Azkenik, espedientearen inguruan ematen diren egintza guztien berari jakinarazteko egiten duen eskariaren inguruan, esan planeamendu integralaren aldaketa puntualeko dokumentu baten aurrean aurkitzen garela, eta bere formulazioa, lurzoru eta hiri antolaketa erregimen gaietarako presakazko neurriak auratzen dituen martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren aplikazioan, Udalari dagokio. Honelakoetan, herri ekimeneko planetan, Hiri Planeamenduko Arautegiak ez du banakako jakinarazpena xedatzen baizik eta herri informazioa, dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko hedapen handienetako egunkari batetan argitaratuz.

3.- *Ondorioak*.- Proposatutako etxebizitza kopuruari buruz alegazioa onartzea gainontzekoa gaitzetsiz.

- Jose Ignacio Intsausti Jauregi J., Javier Intsausti Jauregi J eta Magdalena Fernandez Diaz de Otazu A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina*.- Aurkeztutako alegazioan gunearen ordenamenduaren birkontsiderazioa eskatzen da, "Iruena" izeneko eraikina kontsolidatuta gera dadin.

Halaber, aurrikusitako aprobetxamenduak aurrikusitako urbanizazio zamak jasateko adinakoak ez direla esaten da eta glorieta burutzeari dagozkienak berriz kanpo geratu beharko liratekela.

Azkenik, bere interesatu izaeran, espediente honetan eta honi lotutakoetan ematen diren egintzak jakinarazi dakiekela eskatzen da.

2.- *Kontsiderazioak*.- Iruena etxea bariantearen zuzenketak ukitzen du, eta hori 3 Sektoretik datozen bidegorri eta oinezko bideari jarraipena eman beharrak sortzen du, bere kokapena porposatutako antolamenduarekin bateraezina delarik.

Aldaketa dokumentuan planteatutako antolamendu proposamena ekonomi eta bideragarritasun ikuspegi batetik aztertua izan zen. Hala ere, bidegarritasun azterketa berri baten egitea aurrikusitako eraikuntza berrietako behe solairuetan kokatutako merkataritza aprobetxamendu gehiagizkoari lotuta, gunerako aurrikusitako etxebizitza kopuru guztizkoa gehitzea aholkatzen dute. Horretarako, merkataritza erabilerarako aurrikusitako zati handi bat egoitzazko bezala hartzea proposatzen da eta era berean teilatupe solairua ganbara moduan hartzea, etxebizitza kopurua handituz, eraikitako azalera gehiegi ukitu gabe, horrela ordenamenduaren eta gune osoaren urbanizazioaren finantza bideragarritasuna, sarbideko glorieta barne, bermatua izan dadin.

...///...

...///...

Aldaketa espedientean aurrikusitakoaren ezaugarri eta baldintzak dituen elkargune glorietaaren burutzea 10 eta 12 H.A. gunerako aurrikusitako ordenamendu eta beharrei erantzuten dio. Horregatik, ez gara ari gunearen kargura komunikazioetako sistema orokor bat burutzeari buruz baizik eta hau 10 eta 12 H.A.tan aurrikusitako ordenamenduaren ondorioz dator. Eta hortik bere kostua guneari eranstearena.

Azkenik, espedientearen inguruan ematen diren egintza guztien berari jakinarazteko egiten duen eskariaren inguruan, esan planeamendu integralaren aldaketa puntualeko dokumentu baten aurrean aurkitzen garela, eta bere formulazioa, lurzoru eta hiri antolaketa erregimen gaietarako presakazko neurriak auratzen dituen martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren aplikazioan, Udalari dagokio. Honelakoetan, herri ekimeneko planetan, Hiri Planeamenduko Arautegiak ez du banakako jakinarazpena xedatzen baizik eta herri informazioa, dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko hedapen handienetako egunkari batetan argitaratuz.

3.- *Ondorioak*.- Proposatutako etxebizitza kopuruari buruz alegazioa onartzea gainontzekoa gaitzetsiz.

- Lasa-Esnaola sendiak aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina*.- Aurkeztutako alegazioan Iturgaitza Kaleko 3 eta 4 zenbakien artean dihoan bidea nabarmenki zuzentzea proposatzen da, honela 3 zbk.aren inguruan gelditzen den lursail pribatu librea handituz.

2.- *Kontsiderazioak*.- Alegazioan azaltzen den eskakizuna, bertan adierazten den bezala, 10-12 H.A.ko garapenean egin beharko den B.E.B.E.ren zehaztapena gehiago da Aldaketa dokumentuan baino. Horregatik alegazioaren onartzea edo gaitzestea figura horretara bidaltzea egokiago ikusten da.

3.- *Ondorioak*.- Aurkeztutako alegazioa kontsideratzea ala ez gunearen garapenerako egin beharko den B.E.B.E.ra bidaltzea proposatzen da.

- Xabier Soroa Etxezarreta J. eta Maite Soroa Etxezarreta A.k aurkeztutako alegazioa.-

1.- *Alegazioaren edukina*.- Aurkeztutako alegazioan zera eskatzen da: beste finka batzuetan egiten den bezala, beraienean ere eraikinaren inguruan eraikuntzatik at geldituko den gunea pribatua aurrikustea, zuhaitz batzu dituztelako landatuta, baratza eta aparkalekua dutelako eta bere etxe aurreko espaloia zabaltzeko behar izan ziren lurra eman zituztelako.

2.- *Kontsiderazioak*.- Horri dagokionez, esan behar da Aldaketa dokumentuan, inguruan lursail librerik gabe zenbait eraikinen kontsolidatzea aurrikusten dela, gaur egun eraikinen inguruan dauden lurra gaur gaurkoz zehatz gabe dagoen burutze unitate batean sartuz, zehazketa hau planeamenduko garapenari dagokion dokumentuan (B.E.B.E.) egingo delarik.

Zentzu honetan esan behar da ordenamendu proposamenak izaera indikatiboa duela soilik eta, ukitutako eraikinen inguruan eraikuntzatik at geratuko den lursail baten aurrikuspene gomendagarria ulertuz ere, planeamenduko garapenari dagokion dokumentua izango da zehaztasunez gai hori zehaztuko duena.

...///...

...///...

3.- *Ondorioak*.- Alegazioaren kontsiderazio osoa edo partziala planeamenduko garapenera bidaltzea proposatzen da.

Alkateak esaten du egon diren alegazioen ondoren zenbait aldaketa sartu direla behin behineko onarpenera aurkeztzen den Arau Aldaketa dokumentu honetan eta alegazio hauen inguruko azalpena egiten du esanez alegazioak mota hauetakoak direla:

1.- beraien etxe inguruetan, Hiribarren, 12, 14 eta 16, lursail pribatu librea aurrikusi dadila eskatzen dutenena, baita ere etxe bloke berrietatik lehengo etxeetara tarte gehiago eskatuz. Alegazio hoietan, baita ere, bere garaian espaloiak egiteko lurra eman izana adierazten da.

Honen aurrean esaten du aldaketaren planoak eta ordenazioa, zehaztasun hauei dagokienean, orientatiboak direla eta bere egunean egiten den B.E.B.E.a izango dela gauza hauek zehaztuko dituen. Dena den, bai planteatzen dela, gero B.E.B.E.a idazterakoan borondatea jasota egon dadin, planoak aldatzea gaurko etxeen inguruan lursail pribatu librea marraztuz eta lehengo etxeetatik etxe berrien blokeetarako tarte 10 m.tatik 16 m.tara handituz. Baita ere esaten du bere egunean espaloiak handitzeko lurra eman izanarena horrela dela, konstantzia gera dadin.

2.- Beste alegazio multzo bat bariante aldeko etxeetakoen ingurukoak lirateke. Hauek, sarbideko glorieta dela eta, beraien etxeak antolamenduz kanpo gelditzen direla eta, alternatiba bat eskatzen dute eta bestalde esaten dute glorieta hori ez litzakela joan behar unitatearen gain baizik eta sistema orokor bezala udalak burutu beharko lukeela.

Honen aurrean esaten du glorieta hor jartzearena bi edo hiru urteko hausnarketaren ondorioa izan dela, unitate hoiei sarrera bat emateko, eta aztertu diren beste alternatibak ez direlako egokiak ikusi. Gaineratzen du, gune horretan aurrikusi den etxebizitza kopurua glorieta eta gainontzeko urbanizazio kostuei aurre egin ahal izateko adinako kopurua eman dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du azpimarratuta eta aktan jasota gera dadin nahiko lukeela, alderdi guztien adostasunez bideragarritasun horri asko begiratu zaiola eta urbanizazio kostuei aurre egiteko eta eraikigarritasun eta kostuen artean oreka bat egon dadin unitate guztian eraikigarritasuna solairu batean igo dela,.

Alkateak jarraitzen du esanez, lehengoen bidetik dihoan beste alegazio batean, zera adierazten dela: 10 H.A.n industrial zerbitzugune izatetik egoitza gunera pasatzea egoki ikusten duela baina aldi berean 12 H.A.n zegoen etxebizitza dentsitatea jeitsi egiten dela, lehen zegoen hektareako 70etik 56 etxebizitzetara. Eta honen aurrean esaten du Alkateak, lehen aipatu den bideragarritasun hori mantentzeko, dokumentuan hasera batean aurrikusten zen 256 etxebizitza kopurua 394 etxebizitzara igo dela eta hauetatik, babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua ere igo egingo litzatekela, 56tik 78 etxebizitzetara. Esaten du baita ere kudeaketa sistema bezala kooperazio sistema ezarri dela.

Beste alegazio batean, jarraitzen du alkateak, bere etxe ondoko lursail librea lauki formakoa gera dadin, ondoko bidearen norabidea pixka bat aldatzea eskatzen da. Eta honen aurrean esaten du teknikoki ez zela aldaketa hori ondo ikusten baina hemen ere esan behar da aldaketa horren zehaztasuna aldaketa honen ondorengo B.E.B.E.ak jaso beharko duela, hau da, alegazio hau B.E.B.E. hori egiten denean aztertu beharko dela.

...///...

...///...

1. Sektorearen inguruan alegazio bat izan da, Aldaketa dokumentuan Intxaurren baserria bota eta berria egitea ahalbideratu dadin eskatuz eta alegazio honi ezezkoa ematen zaio.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako 9 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- 10 eta 12 H.A eta 1 S. ren Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual honen haserako onarpenaren aurrean egon diren alegazioak tekniko erredaktatzaileen txostenetan proposatutakoaren arabera onartu, gaitzetsi eta erabakitzea.
- 2.- Onartutako alegazioen ondorioz dokumentuan aldaketak sartu ondoren Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin behingoz onartzea.
- 3.- Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

V.- 3 SEKTOREKO LURSAILEN BESTERENGANATZE ESLEIPENEAN ALDAKETA.-

Udal Osoko Bilkura honek, 2002ko apirilaren 25ean egindako batzarraldian, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3 Sektoreko udal jabetzako lursail pribatu eraikigarrien besterenganatzea egiteko enkantea deitzea erabaki zuen.

Enkante horren emaitzen ondorioz, Osoko Bilkurak, 2002ko uztailaren 18an egindako batzarraldian, 3 Sektoreko 7 zbk.dun lursailaren esleipena Silvia Gomez Tolosa A.ri egitea erabaki zuen.

Geroztik Silvia Gomez Tolosa A.k 3 Sektoreko 7 zbk.dun lursailaren esleipena bera eta Pedro M^a Aiestaran Beloki J.ren izenean egina izan dadin eskatu dio Udal honi.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3 Sektoreko udal jabetzako lursail pribatu eraikigarrien besterenganatzea egiteko deitutako enkantean, 7 zbk.dun lursailaren esleipena Silvia Gomez Tolosa A. eta Pedro M^a Aiestaran Beloki J.ri egitea erabakitzen du.

VI.- ZAHARREN EGOITZARAKO DIPUTAZIOARI LURRAK EMATEA.-

Udal honek Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala izapidatua du 6 Hirigintz Arian bertan gerontologi etxe bat kokatu ahal izateko.

Bestalde elkarrizketak izan dira Ataun, Olaberri eta Lazkaoko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamenduaren artean. Elkarrizketa hoietan hiru Udalek Gizartekintzari azaldu diote Lazkaon gerontologi etxe bat martxan jartzean interesatua leudekela.

Nahi hauek harrera baikorra izan dute Gizartekintzaren aldetik eta horren aurrean hitzarmen edo akordio bat izenpetzea planteatzen da. Akordio horren puntu nagusiak hauek lirateke:

...///...

...///...

1.- Lazkaoko Udalak gerontologi etxe bat eraikitzeke beharrezko diren lurak lagako dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Aldundiak berak egin dezan lur sail horietan zentro berria eraikitzeke eta kudeatzeko lehiaketa.

2.- GIZARTEKINTZAK etxe horretan sartzeko lehentasuna bermatuko die Lazkao, Ataun eta Olaberriko herritarrei, plaza mota edozein dela ere.

3.- Hitzartzen da bitariko batzorde bat eratzea, Lazkaoko Udalak eta Gizartekintzak osatua, gerontologia etxe berriaren jardueraren jarraipena egiteko, ohiko jardueraren alderdi ezberdinak aztertzeke, eta egoki irizitako bestelako edozein gairi buruz hitzegiteke.

4.- Batzorde hori, gutxienez, sei hilean behin bilduko da.

Alkateak gehitzen du 3. puntuan aipatzen den batzordean hiru udaletako ordezkariak egon dadin izango litzatekela udalen nahia.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 9 partaideren aldeko botuarekin eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, zera erabakitzen du:

1.- Lazkaon gerontologi etxe bat martxan jartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetu behar den hitzarmena, akordio honen aurrekinetan zehazten dena, onartzea.

2.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6 Hirigintz Areak, gerontologi etxe bat eraikitzea ahalbidetzeko egindako Arau Subsidiarioetako aldaketa puntualean zehaztu moduan, gerontologi etxe hau eraikitzeke behar diren lurak Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea.

3.- Alkatea ahalmentzea aurreko puntuan erabakitakoa aurrera eramateke beharrezko diren dokumentuak izenpetu ditzan.

VII.- 2002KO AURREKONTUAN AURRIKUSITAKO MAILEGUA KONTRATATZEA.-

Alkateak esaten du 2002ko aurrekontuan kreditu eragiketa bat egitea aurrikusten dela.

Kreditu eragiketa hau egiteke jasotako informazioaren tartean Gipuzkoako Donostia Kutzak egindako eskeintza ikusi ondoren, kontratua entitate honekin egitea proposatzen da.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du aurrekontuan aurrikusita dauden inbertsioak finantzatzeko baldin bada, beraiek alde bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontua ez zutela onartu eta beraz aurrekontu horretatik eratorritako mailegu hau ere ez dutela onartuko.

Honen aurrean eta Hazienda Batzordearen proposamenez, Udal Osoko Bilkurak, berau osatzen duten hamaika partaidetatik bertan bederatzi lagun daudelarik, aldeko 8 botu (EAJ, EA, EH) eta aurkako botu batez (PSE-EE), eta beraz Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.-

...///...

...///...

1.- Gipuzkoa Donostia Kutzarekin MILIOI BAT ZAZPIREHUN ETA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMALAU EURO ETA ZERO BEDERATZI EUROAREN ZENTIMO (1.719.334,09 €)tako zenbatekodun kreditu bat hitzartzea, bere ezaugarri nagusiak, onartu eta akordio honi ERASKIN gisa erasten den Kontratu Proiektuaren arabera, honako hauek direlarik: Interes aldakorra, EURIBOR + % 0,2; Amortizazio epea, 15 urte, gabealdiko 4 urte barne direlarik; Irekitze komisioa, % 0,00.

2.- Mailegu horrek 2002ko aurrekontuko inbertsioetako kapituluan azaltzen diren zenbait inbertsio proiektu finantzatzea du helburu.

3.- Kontratututako mailegua itzulia izango denaren bermetzat, Aurrekontuetatik sarrerak suposatzen duten berme nagusiaz gain, eta halaber oraingo eta etorkizuneko ondasun eta eskubideek eman lezaketen berme orokor eta subsidiarioaz gain, honako beste hauek egiletsiko dira:

Lazkaoko Udalaren lehentasunezko hartzekodun izaki, adierazitako maileguaren-gatik, berauen interes, komisio, gastu, eta zor litekeen guztiarengatik, modu berezi batez lotesten eta zorperatzen dira ondoko baliabideok sortaraziko sarrerak:

UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

Hitzarturiko bermea egikaritu ahal dadin, ahalmena ematen zaio Gipuzkoa Donostia Kutzari, modu errebokaenezinean eman ere, akordio hau unean uneko Entitate edo Organismo ordaintzaileari erakutsi eta beste betekizunik gabe, kobratu ahal izan ditzan Lazkaoko Udalarari aurreko pasartean zehazturiko baliabideetan duen partaidetzagatik zor zaizkion diru-kopuruak.”

4.- Gaurko egunez, zorpetze guztiari dagokionean, oraingo kreditu hau barne, Udalak formalizatuta dituen mailegu edo kredituen ehunekoen kopuru berdina edo haundiagoan, Udal Finantzaketarako (Itundutako Zergak) Foru Fondoko partaidetzatik, edo bere kasuan hau ordezkatu duenetik, datozen diru-sarrerak Gipuzkoa Donostia Kutzan helbideratzea, modu errebokaenezinean.

Aipatu helbideratzeari, Gipuzkoa Donostia Kutzarekin kontratatu behar den eragiketa honetatik nahiz indarrean dauden beste kreditu eta maileguetatik eratorriko finantz betebeharrak kitatu arte eutsiko zaio.

Bigarrena.-

Alkatea den Felix Urkola Iriarte edo hau legez ordezkatzeko duenari ahalmen espresua ematea, Udalbatzaren izenean, eragiketa honen formalizaziorako beharrezkoak izan daitezkeen dokumentu publiko eta pribatu guztiak formalizatu ahal izan ditzan.

Hirugarrena.-

Akordio hau, eta horretarako osatutako espedientea, legezkoa den arauko 15 eguneko epean jendaurrean edukitzea.

Laugarrena.-

Espedientea Gipuzkoako Foru Diputaziora bidaltzea aurretik lortu behar den baimena eskuratze ondorioetarako.

...///...

...///...

VIII.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Alkateak esaten du datorren urtean indarrean sartuko liratekeen ordenantza fiskaletako tarifa aldaketak planteatzen direla. Planteatzen diren aldaketak, Kontsumoko Prezioen Aldaketaren igoeraren parekoak izango lirateke, 2001eko abuztutik 2002ko abuztura eta Euskal Autonomi Erkidegoko erreferentzia hartuz, igoera hau % 3,9koa izan delarik.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek aurrekontua ez zutela onartu eta tasak aurrekontuko sarreraren zati garrantzitsua direla eta beraz aurka bozkatuko duela,

Honen aurrean Osoko Bilkurak, Hazienda batzordearen proposamenez, aldeko zortzi botu (EAJ, EA, EH) eta aurkako botu batez, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Ordenantza fiskalen aldaketa proposamen hau, bere espedientean aurkitzen dena, haserakoz onartzea. Aldaketa hau tarifak %3,9 igotzean datza.
- 2.- Aurreko puntuko akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea 30 egunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurreko denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, haserako onarpenak behin betikoak bihurtutzat joko dira, akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du Belen Gonzalez lazkaotarra Fleuriko espetxetik Renneskoera pasatu dutela eta udal honek Belen Gonzalezi herriaren berri emanez sortzen den dokumentazioa bidaltzearen akordioa hartuta duela, eta horrela jarraitu dadin aldaketaren berri ematen du.

Alkateak erantzuten dio kontutan hartuko dela eta gaineratzen du Belenen amarekin gaur egon dela eta Belen ondo dagoela esan diola.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...